

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ZALDIZ IBILTZEKO KONDIZIO FISIKOAK ETA ZALDIAREN GAITASUNA	Iraupena	60
		Berariazkoa	
Kodea	UF0834		
Lanbide-arloa	Kirol-jarduera fisikoak		
Lanbide-eremua	Aisialdiko gorputz- eta kirol-ekintzak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ingurune naturaleko zaldi-ibiltzedeetako gida	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Zaldiz ibiltzeko oinarrizko teknikak (zeharkakoa)	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Zaldiz ibiltzeko instalazioak eta ekipoak.	Iraupena	40
	Zaldiz ibiltzea.		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator LB2 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Zaldi batek geldirik eta mugitzen ari dela dituen kondizio fisikoak identifikatzea, eta zaldizko batekin ibiltzeko duen gaitasuna baloratzea.

EI1.1 Zaldiari zaldizko batekin ibiltzea galarazten dioten anomalia fisiko garrantzitsuak definitzea.

EI1.2 Geldirik dagoen zaldi bat zaldizkoarekin ibiltzeko gaitasunik gabe utz lezaketen lesioak eta/edo zauriak aurkitzea.

EI1.3 Mugitzen ari den zaldi bati herrena —zaldizkoarekin ez ibiltzea gomendatzeko modukoa— identifikatzea.

EI1.4 Zaldi baten kondizio fisikoak zehazten duten faktoreak —zaldiei mugitzean behatuta zehaztuak— definitzea, eta zaldizkoarekin ibiltzeko gaitasuna dutela erakusten dutenak bereiztea.

EI1.5 Laneko arriskuak prebenitzeko eta animalien ongizaterako arauak —zaldi batek zaldizkoarekin ibiltzeko dituen kondizio fisikoak aztertzeari lotuak— adieraztea.

EI1.6 Zaldi batek zaldizkoarekin ibiltzeko dituen kondizio fisikoak ebaluatzen diren kasu praktiko batean:

- Zaldi bat geldirik dagoela aztertzea, ikusteko ba ote duen malformazio, lesio edo zauririk, zaldizkoarekin ez ibiltzea gomendatzea ekar lezaketenik.
- Zaldi batek oinez eta trostan duen mugimenduari behatzea, eta egiaztatzea ez duela lekualdatzea zailduko duen herrenik.
- Zaldi bat sokatik helduta hezte, eta haren egoera fisikoak baloratzea.

A2: Zaldi baten izaera identifikatzea, eta ebaluatzea, zaldizkoarekin ibiltzean zer portaera izango duen aurreikusteko.

EI2.1 Geldirik dagoen eta mugitzen ari den zaldi baten gogo-aldarteak zehazten duten faktoreak aipatzea, eta hartan eragiten duten askotariko egoerak adieraztea.

EI2.2 Ekipoa jartzean zaldi batek bere boxean duen portaera (haren izaeraren berezitasunak zehazten dituenak) deskribatzea.

EI2.3 Zaldiak ekipoa ez duela onartu eta ekipora gaizki egokitu dela adierazten duten faktoreak aipatzea, eta kasu bakoitzean jarraitu beharreko zuzenketa-protokoloa identifikatzea.

EI2.4 Zaldi batek zaldizkoarekin ibiltzean duen ohiko portaera azaltzea, eta portaera alda dezaketen egoerak deskribatzea.

EI2.5 Zaldia zaldizkoarekin ibiltzean zer desobedientzia eta bizio dituen ezagutzea, eta kasu bakoitzean erabiltzen diren zuzenketa-teknikak identifikatzea.

EI2.6 Laneko arriskuak prebenitzeko eta animalien ongizaterako arauak —zaldi batek zaldizkoarekin ibiltzeko dituen izaera eta gaitasuna aztertzeari lotuak— adieraztea.

EI2.7 Zaldi batek zaldizkoarekin ibiltzeko dituen izaera eta gaitasunak ebaluatzen dituen kasu praktiko batean:

- Boxean dagoen zaldi batengana hurbiltzea, eta gure presentziarekin zer jarrera duen aztertzea.
- Zaldiari ekipoa jartzean zer erantzun duen ebaluatzea.
- Zaldiak hura gobernatzean zer erantzun duen ebaluatzea.
- Ekipoa jarri zaion zaldi bat kabestrutik eramatea, eta haren gogo-aldarteak baloratzea eta ekipoa onartzen duen ala ez eta hara nola egokitzen den aztertzea.

Edukiak

1. Zaldiaren azterketa fisikoak

- Espeziearen kanpoaldea:
 - Gorputzeko atalak.
 - Identifikazioa.
 - Ohiko akatsak.

- Hanka-jarreraren azterketa.
 - Zuzena.
 - Okerra.
- Azala, geruzak eta ilea:
 - Koloreak.
 - Berezitasunak.
 - Ilearn osotasuna.
- Asaldura fisiko garrantzitsuak:
- Malformazioak:
 - jaiotzetikoak,
 - Traumatikoak.
- Ohiko lesioak eta zauriak.
- Herrenak:
 - Zeinuak eta sintomak.
 - Identifikazioa.
 - Balorazioa.
- Kondizio fisikoak:
 - Aztertze metodoak
 - Balorazioa.

2. Zaldiaren izaera eta portaera

- Zaldiaren ohiko portaera eta bizimoduak:
 - Aske.
 - Ukuiluratu.
- Zaldiaren izaera eta gogo-aldarteak definitzen dituzten faktoreak.
- Zaldiak zaldizkoarekin dabilenean duen ohiko portaera.
- Zaldizkoarekin dabilen zaldiaren desobedientziak eta bizioak:
 - Azterketa.
 - Zuzenketa-teknikak identifikatzea.

3. Zaldi batek zaldizkoarekin ibiltzeko dituen kondizio fisikoak, izaera eta gaitasuna aztertzeari lotutako araudia aplikatzea

- Legeak.
 - Estatukoak, autonomia-erkidegokoak eta tokikoak.
- Hauei buruzko araudiak erregulatzen dituen jarduerak:
 - Lan-arriskuen prebentzioa.
 - Animalien ongizatea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-egagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ingurune naturaleko zaldi-ibilbideetako gida.